

ANGELA DE LA CRUZ

27.11.2015 — 16.01.2016

Azaroaren 28tik aurrera, CarrerasMugicak atsegin handiz aurkeztuko dizu Mudanza, Ángela de la Cruz artistak bere lan berria azaltzeko Bilbon ikusgai izango duen lehen erakusketa.

2013tik aurrera, trantsiziozko espazioak ikertu ditut nire praktika artistikoan. Stockholmeko WetterlingGallery-ko Vacant(2013), Madrilgo GaleríaHelga-ko Traspaso(2014) eta, orain, Bilboko CarrerasMugican dagoen Mudanza(2015) erakusketek osatzen dute hirukotea, gauzen denborazko alderdia lanaren ardatz gisa duena.

Mudanza hitz anbigua eta iragankorra da. Aldaketa dakar, baina, aldi berean, konponbide estetikoari egiten dio aipamen, hau da, obra nola paketatzen den, nola jasotzen, garraiatzen eta biltegitratzen den. Alabaina, trantsito hori nola erraztu ere badu ardura, denbora eta espazioa aurrezte aldera. Galeriara iritsi aurretik eta, orobat, erakutsi ondoren, artelanekek duten espazio edo ibilbide hori nola kudeatu funtsezko ideia zen erakusketa honetako obraren hizkuntzan eta garapen sortzailean. Obra garraiatzeko eta biltegitratzeko prozesua, eta mugimendu eta merkantziaren trafikoaren ideia oinarritzkoa da erakusketaren kontzeptuan eta display-an. Artelanak ez daude geldirik, iragaitzaz agertzen dira, hala tituluen bidez, nola egiten duten ibilbide kontzeptualaren bidez.

Nire gainerako obretan bezala, Mudanza erakusketan batera nahasten ditut umorea eta ironia estetikarekin eta CarrerasMugicako erakustokiak dituen aukerekin eta egingarritasunarekin. Obra gehienak, hau da, aurrez kartoian modelatutako aluminiozko piezak, baina oihaltzako gaineko olio-lanak eta akrilikoak eta plastikozko aulkiak ere bai, kolore zitriko bizikoak dira -laranjak eta horiak-. Kontraste nabarmena sortzen dute galeriak gorde duen jatorrizko kutsu industrialarekin eta espazioaren sendotasunarekin; eta, aldi berean, Bilboko hiriaren izaera islatzen dute, Espainiako hiririk industrializatuenetako bat baita Bilbo, etengabeko mugimenduan baitago.

Ángela de la Cruz-ek (Coruña, 1965) Filosofia ikasi zuen Santiago de Compostelan (1985-88) eta Chelsea College of Arts-en (1989-90). Bestetik, Arte Ederrak egin zituen Goldsmith College-n (1991-94), eta Eskultura eta Artearen Teoria Masterra Londresko Slade School of Arts-en (1994-96). 2010ean Turner Sarirako egon zen izendatuta. Hainbat bildumatan eta museotan du obra, besteak beste, hauetan: Tate Gallery (Londres), Colección La Caixa, National Gallery of Victoria (Melbourne), FRAC Nord Pas de Calais eta Museo Patio Herreriano.

Erakusketaren inaugurazioa azaroaren 27an izango da, ostiralararekin, 20:00etan, eta artista bertan izango da.



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Tigth (oraneg, Yellow, Dark Orange/Orange) 2015.
Olio mihise gainean.110x47x59 cm.



Ikuspegi orokorra



Standing up Box Large with Small Box (Orange), 2015.
Olio eta akrilikoa aluminio gainean. 176 × 60 × 42 cm



Box Large with Small Box (Orange), 2015.
Olio eta akrilikoa aluminio gainean. 170 × 58 × 42 cm



Ikuspegi orokorra



Standing up Box Large with Small Box (Yellow), 2015.
Olio eta akrilikoa aluminio gainean. 176 × 60 × 40 cm




Box Large with Small Box (Yellow), 2015.
Olio eta akrilikoa aluminio gainean. 170 × 77 × 48 cm



Standing up Box Large (Ligth Orange), 2015.
Olio eta akrilikoa aluminio gainean. 124 x 61 x 44 cm.



Ikuspegi orokorra



Roll (Pale Yellow with Shinny Border Yellow) and Roll (Orange with Dark Orange Border), 2015.
Olio mihise gainean. 167 × 13 Ø



Ikuspegi orokorra



Mudanza (Orange), 2015.
Aulkiak eta olio mihise gainean. 110 × 47 × 59 cm



Box Large (Orange), 2015.
Olio eta akrilikoa aluminio gainean. 123 × 86 × 43 cm



Box Large (Yellow), 2015.
Olio eta akrilikoa aluminio gainean. 132 × 87 × 40 cm



Box Large (Yellow), 2015.
Aulkiak eta olio mihise gainean. 132 × 87 × 40 cm

